Lan-eskaintzen erregistroa 2022ko abenduan

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan 710 eskaintza erregistratu dira 2022ko abenduan, azaroan baino 427 gutxiago eta 2021eko abenduan baino 34 gutxiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen lurralde historikoari dagokionez, 2022ko abenduan 128 eskaintza erregistratu dira Araban, 252 Gipuzkoan eta 330 Bizkaian. Eskaintzen % 46,5 Bizkaiko UAGetan erregistratu dira, % 35,5 Gipuzkoan eta % 18 Araban.



Araban, hilabete honetan, eskaintzak % 32,6 jaitsi dira (62 eskaintza gutxiago); Bizkaian % 28,7 (133 eskaintza gutxiago) eta Gipuzkoan % 47,9 (232 eskaintza gutxiago).

Iazko hil beraren aldean, 29 eskaintza gehiago izan dira Araban (% 29,3ko igoera); Bizkaian 23 eskaintza gutxiago izan dira (% -6,5) eta Gipuzkoan % 13,7 gutxiago (40 eskaintza gutxiago).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn zientzia-teknikarien profilak izan ditu eskaintza gehien: 139 eskaintza eta eskaintza guztien % 19,6. Ondoren zerbitzuen profila dator, 134 eskaintzarekin eta % 18,9ko pisuarekin. Laguntzako eta industriako teknikarien okupazio-profilek ere garrantzi handia dute erregistratutako eskaintzei dagokienez, erregistratutako eskaintzen bolumena 129 eta 100 eskaintzakoa baita, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien erregistratu dituzten profilak zuzendaritzako eta lehen sektorekoak izan dira, 4 eskaintza baino ez dituzte izan eta profil bakoitzean.

Joan den hilabetearekin alderatuta, profil guztietako eskaintzen kopuruak behera egin du. Termino absolutuetan, gehien jaitsi den profila industriarena da, 101 eskaintza gutxiagorekin eta % 50,3ko jaitsierarekin; termino erlatiboetan, jaitsierarik handiena zuzendaritza-profileko eskaintzetan gertatu da, % 63,4ko jaitsierarekin (- 7 eskaintza gutxiago).

Urte arteko saldoari dagokionez, jaitsierarik handiena, bai kopuru absolutu, zein kopuru erlatiboetan, industria-profileko eskaintzetan gertatu da (29 eskaintza gutxiago, % 22,5eko jaitsiera). Aldiz, igoera handiena, balore absolutuetan, administrarien profilean izan da, % 16,9ko hazkundearekin(11 eskaintza gehiago); balore erlatiboetan, berriz, lehen sektorekoetan izan da igoera nabarmenena (+1 eskaintza, % 33 gehiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 39,2k kontratu mugagabea eskaini dute; % 60,7k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,1ak, merkataritzakoa. Kontratu mugagabea eskaini duten eskaintzen portzentaia altua da; 2021etik zetorren joera indartzen ari da 2022an. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 278 izan dira, aurreko hilabetean baino 100 eskaintza gutxiago (% 26,5eko beherakada). Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 322 eskaintza gutxiago erregistratu dira: 431 eskaintza izan dira guztira; kopuru erlatiboetan beherakada % 42,8koa izan da. Azkenik, merkatari izaerako kontratu 1 eskaini da 2022ko abenduan , aurreko hilean baino 1 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 118 gehiago izan dira (% 45,4ko hazkundea); aldi baterako kontratuen eskaintzak, aldiz, % 46,7 murriztu dira (659 eskaintza gutxiago). Eta, azkenik, merkataritzako 16 kontratu gutxiago erregistratu da (22tik 6ra,azken urtean).

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2022ko azaroan erregistratutako lan-eskaintzen % 74,6k, 848 eskaintzak, 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,7k (144 eskaintza) 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dute. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 3,5eko pisua dute (40 eskaintza) eta, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten 5 eskaintza egon da hil honetan (eskaintza guztien % 0,4).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintzak tarte guztietan murriztu dira. Balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete artekoena izan da gehien jaitsi dena (324 eskaintza gutxiago erregistratu dira; % 38,2ko beherakada). Balio erlatiboetan, aldiz, jaitsiera handiena 5 urtetik gorako esperientzia eskaintzetan izan da; % 80ko jaitsiera izan baitu (4 eskaintza gutxiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, esperientzia tarte guztietan murriztu dira eskaintzak 3 eta 5 urte artean izan ezik; 10 eskaintza gehiago erregistratu dira (% 90,9 gehiago). Gehien jaitsi den tartea, balio absolutuetan, 0-6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenena izan da 35 eskaintza gutxiago jaso baitira (% 6,3ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen dutenetan gertatu da (% 83,3ko beherakada, 5 eskaintza gutxiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 7 hileko esperientzia eskatzen dute, aurreko hileko epe berdina.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 13,1ek zehazten du datu hori (710 eskaintzetatik 93). 93 eskaintza horietatik, 77k lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 16ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 33 gutxiago izan dira azaroarekin alderatuz, hau da, % 30 jaitsi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak ere murriztu egin dira; 7 eskaintza gutxiago eta murrizketa erlatiboa % 30,4koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 77 izan dira, iazko kopuru berbera, eta lanaldi partzialeko kasuan, berriz, 2 gutxiago (% 11,1eko beherakada).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 7 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 11 eskaintza gutxiago eta aurreko urtean baino 12 gutxiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 78k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 710 eskaintzetatik 156k soilik zehaztu dute.



156 eskaintza horietatik, 63k unibertsitate mailako prestakuntza eskatu dute; ikasketa maila honetako eskaintzak izan dira ugarienak. Gertutik jarraitzen die LHko ikasketa maila eskatu dutenak; 56 izan dira abenduan. Azkenik, oinarrizko eta batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (23 eta 14 eskaintza, hurrenez hurren).

Hil arteko erlazioari dagokionez, profil guztietako eskaintzek behera egin dute. Jaitsierarik handiena, balio absolututan, unibertsitate-ikasketako eskaintzetan gertatu da, 39 eskaintza gutxiago (% 38,2ko jaitsiera); balio erlatiboetan, aldiz, derrigorrezko ikasketak behar dituzten eskaintzak izan dira gehien jaitsi direnak (-%59,65, 34 eskaintza gutxiago).

2021eko abenduarekin alderatuta, gora egin du eskaintzak ikasketa maila guztietan. Urteko erreferentzian, batxilergoko ikasketak behar dituzten eskaintzak dira balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien igo direnak (9 eskaintza gehiago eta % 180ko igoera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena industria da; honen pisua eskaintza guztien % 14,5ekoa izan da (103 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera bat merkataritza da, eskaintzen % 11,3ko pisuarekin (80 eskaintza).

Aurreko hilari erreparatuz, profil ia guztietan jaitsi dira eskaintzak. Balio absolutuetan, gehien jaitsi diren eskaintzak, administrazio publikokoak izan dira (105 eskaintza gutxiago, % 60,7ko beherakada); balio erlatiboetan, aldiz, beherakada nabarmena finantza jarduerek izan dute (% 75ko jaitsiera, 6 eskaintza gutxiago). Beste muturrean, gehien hazi direnak, higiezinen gaineko jarduerak izan dira, 4 eskaintza gehiago erregistratu baitira (igoera erlatiboa % 100ekoa izan da).

Urte arteko saldoari erreparatuz, bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balio absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (17 eskaintza gehiago, % 36,2ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, hazkunde handiena ur horniketakoak izan dute % 405 hazi baitira (+9 eskaintza). Bilakaera okerrena izan duten eskaintzak, balio absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (21 eskaintza gutxiago eta % 29,2ko beherakada); balio erlatiboetan, berriz, etxeetako jarduerak izan dira gehien murriztu direnak (% 40ko beherakada, 6 eskaintza gutxiago).